

## BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

### 3507

*AGINDUA, 2012ko uztailaren 26koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, «Gasteizko Mendien aldeko Natura Baliabideen Antolamendurako Plana» izeneko dokumentuari hasierako onespena eman eta jendaurrean jartzeko dena.*

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2010eko otsailaren 12ko Aginduaren bidez, hasiera eman zitzaion Gasteizko Mendien aldeko Natura Baliabideen Antolamendurako Plana idazteko eta onesteko prozedurari.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuak Planaren aurretiazko dokumentua idatzi du, eta dokumentu hori Arabako Foru Aldundiari aurkeztu zaio, alde aurretik txostena egin dezan. Halaber, partaidetza-prozesua ireki zaie interesdunei, gunehorretako interes sozialen titularrei, elkarteei eta antolatu beharreko eremuko udalei. Naturzaintza-Natura Zaintzeko Aholku Batzordeak txostena egin ondoren, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuak hasierako onespena eman behar dio Planari, eta, halaber, jendaurrean jarri behar da Plana, Euskal Herriko Natura Babesteko 16/1994 Legearen 7. artikuluan ezarritako prozedura betez.

Hori dela eta, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

1. artikulua.— Hasierako onespena ematea Gasteizko Mendien aldeko Natura Baliabideen Antolamendurako Planari.

2. artikulua.— 1.— Gasteizko Mendien aldeko Natura Baliabideen Antolamendurako Plana jendaurrean jartzea eta interesdunei entzunaldia ematea, agindu hau EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik, 2012ko urriaren 30era arte.

2.— Interesdunek erakunde hauen bulegoetan izango dute ikusgai dokumentua:

– Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Donostia kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

– Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Saila. Probintzia plaza, z.g., Vitoria-Gasteiz.

– Alería-Dulantzi, Arraia-Maeztu, Bernedo, Burgelu, Iruña Oka, Iruraiz-Gauna eta Vitoria-Gasteizko udalak.

3.— Halaber, interneteko helbide hauetan ere aztertu ahal izango da dokumentua:

– [http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-u95/es/contenidos/informacion/montes\\_vitoria/es\\_bio/indice.html](http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-u95/es/contenidos/informacion/montes_vitoria/es_bio/indice.html) (gaztelarazko bertsioa).

– [http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-u95/eU/contenidos/informacion/montes\\_vitoria/es\\_bio/indice.html](http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-u95/eU/contenidos/informacion/montes_vitoria/es_bio/indice.html) (euskarazko bertsioa).

2012ko uztailaren 30a, astelehena

4.– Alegazioak, iradokizunak eta oharrak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailera bidaliko dira (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz).

Vitoria-Gasteiz, 2012ko uztailaren 26a.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,  
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.